



2002/10/30eko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko iraila

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK EZ DIRA ALDATU 2002KO IRAILEAN

Datu horiekin, urte arteko hazkunde-tasa (2002ko iraila, 2001eko irailarekin alderatuta) % 2,0koa izan da.

2002ko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorraren balioak ez ziren aldatu, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko iraila, 2001eko irailaren aldean) begiratuz gero, % 2,0koa izan da kostuen igoera; eta aurreko abenduaren aldean, berriz, % 2,8 igo da tasa lehenengo bederatzi hilabeteetan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia iraileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Irailean, lehengaien kostuak % 0,1 igo ziren, eta lan-indarraren kostuak, oster, bere horretan iraun du. Hala ere, urte arteko aldiari, lan-indarraren kostuak % 4,0ko igoera izan du; lehengaien kostuek, berriz, % 0,7koa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute irailean: lehengaien kostuak hazi egin dira *obra zibila* azpisektorean (% 0,3), eta *eraikinak* azpisektorean ez dira aldatu (% 0,0). Aldeak nabariagoak dira urte arteko bilakaera aztertuz gero: 2001eko irailaren aldean, % 0,6ko tasa du *eraikinak* azpisektoreak, eta % 1,2koa *obra zibila* azpisektoreak.

Sektoreak gehien kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko irailean, hauek izan dituzte prezio-igoerarik handienak: *petroliotik eratorriak* (% 4,5), *produktu asfaltikoak* (% 1,4) eta *leherkari eta gasak* (% 0,9) arloek, besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenenak kontsumitutako honako produktuen artean ageri dira: *makineria erabilirako osagarriak* (% 6,9), *zementu artifiziala* (% 5,9), *metalezko bestelako gaiak* (% 4,2) eta *estrazzio-agregakinak* (% 2,4) arloetan, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO IRAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,2	0,0	2,0	2,8
ERAIKINAK	119,5	0,0	1,9	2,5
OBRA ZIBILA	118,4	0,2	2,3	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	113,6	0,1	0,7	2,0
ERAIKINAK	114,0	0,0	0,6	1,6
OBRA ZIBILA	112,5	0,3	1,2	3,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:



Eustat

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
Tel.: 945-01 75 05. Faxa: 945-01 75 01
Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es